

1. koadernoia: Ahulguneen analisia



[Peru]

Sendotze Instituzionaleko eta Herritarren Partaidetzako esperientzia

Sarrera

Azken urteetan, Peru hegoaldeko Andean kokatuak dauden Acopía eta San Pedro de Cachora (Cachora, aurrerantzean) distrituetan¹, tokiko agintariak eta gizarte antolakuntzek, erakunde publiko eta pribatuak laguntzarekin, tokiko garapenerako estrategiak jarri dituzte martxan, pobrezia eta isolamendu geografikoak sortzen dizkieten arazoei aurre egiteko. Estrategia horiek, eskualde horietako biztanleen bizi kalitatea hobetzea lortu badute ere, badituzte hainbat ahulgu-ne: adibidez, estrategien ezarpenaren jarraitutasunik eza, eta ekimen horietan parte hartzen duten gizarte eragileen desartikulazioa eta koordinaziorik eza.

1. Kokapena eta biztanleria

Acopía eta Cachorako distrituak, hurrenez hurren, Peruko Cusco eta Apurímac departamenduetan kokatuta daude, 2.600 eta 4.900 metro arteko garaieran. Beraz, bi-biak eskualde menditsu batean kokatuta daude eta antzeko ezaugarri topografikoak dituzte: gailurrak, haitzarteak, haranak eta goi-ordokiak... Ande mendiek hegoaldean izandako gertakari geologikoetatik sortuak.

Bi distrituak nahiko hurbil daude beren departamenduetako hiriburuetatik: Acopíako distritua 141 km-ra dago bere departamenduko hiriburu den Cuscotik; Cachorakoa, aldiz, 52 km-ra dago Abancay hiriburutik.

Acopíako distritua 3 nekazari komunitatek (Acopía, Santa Domingo eta Tactabamba) eta 2 komunitate erantsik (Huayrachapi y Miskiuno) eratzen dute, eta Acopíako komunitatea da distritu burua.

Cachorako distrituari dagokionez, Cachora da herrigune nagusia, eta 3 nekazari komunitatek eratzen dute (Ttastapoyoncco, Asil eta Pantypata).



Mapa: Acopía eta Cachorako distrituen kokapena

6.000 pertsona inguru bizi dira bi distrituetan. % 50 emakumeak dira, eta oso biztanleria gaztea da: % 50 inguru 20 urtetik beherakoak dira; % 20, 20-40 urtekoak; eta % 30, 40 urtetik gorakoak.

1.450 familiak gutxi gorabehera osatzen dute bi distrituetako biztanleria, eta 4 taldetan sailka daitezke, kontuan izanik zer ogibide duten eta zer aukera dituzten oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko:

¹ Peruko lurralde antolakuntzan, distritua unitate politiko-administratibo txikiena da. Distritu multzo batek probintzia bat eratzen du, eta probintzia multzo batek, departamendu bat. Andean distrituak herrigune batek (distritu burua) eta sakabanatutako hainbat nekazari komunitatek eta komunitate erantsiek eratzen dituzte.



Acopíako herrigunea eta izen bereko lakua (Zabalketa)

a. Baliabide handiagoak eta oinarritzko zerbitzuetara heltzeko baldintza hobek dituzten familiak

Distrituaren herrigunean bizi diren familiak dira, eta familia buruaren (gizon nahiz emakume) jarduerak ekonomiko nagusia merkataritza (jaketxea, bodega) edo ostatu txiki baten administrazioa da, edo lanpostu bat du udalerrian, eskolan (irakasle) edo beste zerbitzuren batean. Horrek diru sarrerak ematen dizkie urte osoan, eta talde honetako familia gehienek sarrera osagarriak lortzen dituzte laborantzatik eta abeltzaintzatik.

Diru sarrera handiagoei esker eta bizilekua distrituaren herrigunean izanik, etxean oinarritzko zerbitzuak edukitzeko moduan daude (ura, saneamendu sistema eta argindarra). Gainera, aukera handiagoa dute hezkuntza eta osasun zerbitzuak erabiltzeko.

Proiekturako egin den inkestaren arabera, talde hau ez da iristen bi distrituen familia guztien % 3ra.

b. Baliabide ez horren handiak eta oinarritzko zerbitzuetara heltzeko hala-holako baldintzak dituzten familiak

Talde honetako familiak ekoizleak dira nagusiki, eta abeltzaintzan aritzen dira gehien bat. Abelburu gehien dituzten familiak dira. Merkataritzari lotuak, produktu salmentan aritzen dira ia urte osoan, nahiz eta kantidad txikietan. Familia hauen abereak larre naturaletan bazkatzen dira, hainbat hektareatako eremuetan, eta landutako larre eremu txikiak ere badituzte. Ugalketarako abereen erosketan inbertitzen dute, eta aztiaren maneio eta osasun kontrolerako azpiegitura batzuk erabiltzen dituzte. Talde honetako familia gehienek ura eta argindarra dute etxean, eta seme-alabak eskolara joaten dira erregulariki. Familia guztien % 35 dira, gutxi gorabehera.

c. Oinarritzko zerbitzuetara heltzeko eragozpenak dituzten familia pobreak

Familia hauen jarduera nagusia nekazaritza eta abeltzaintza da, eta lursail urriak eta ganadu kopuru txikiak dituzte (behiak, ardiak eta cuyeak²). Ez dute ekoizpen maneirako azpiegiturarik. Ekoizle txiki hauen abeltzaintza nekazaritzaren jarduera osagarri bat da, eta lortzen dituzten produktu gehienak autokontsumorako dira, eta, neurri txikiagoan, merkaturako. Familia hauek eragozpenak dituzte oinarritzko zerbitzuetara heltzeko (ura, saneamendua, argindarra, hezkuntza eta osasuna), eta familia guztien % 55 dira, gutxi gorabehera.

d. Familia oso pobreak

Familia nekazari oso pobreak dira. Oso lursail txikiak dituzte eta ganadurik ez. Autokontsumorako produktuak lantzen dituzte, familiaren biziraupenerako nahikoa ez bada ere. Ondorioz, artzain edo peoi lanetan aritu behar izaten dute beste familia batzuen lurretan, eta dirua, espezieak edo nekazaritza edota abeltzaintzatik eratorritako produktuak jasotzen dituzte trukean.

Familia gehienek ez dute ez urik, ez komunik ezta argindarrak ere etxean, eta seme-alabek askotan ez dira eskolara joaten. Familia guztien % 5 dira, gutxi gorabehera.

2. Etxebizitza eta Oinarritzko Zerbitzuak

Eskualde hauetako etxe gehienak adobezkoak dira, eta familiek berek eraiki ohi dituzte. Soilik herriguneetan aurki daitezke adreiluz eta zementuz eginiko etxeak.

Oro har, etxe gehienetan ez dago oinarritzko zerbitzurik (ura, saneamendua eta argindarra), eta soilik herrigu-



Acopiako nekazari familia (Red Sur de Cáritas)

neetako kale nagusietako etxeek dituzte ur hornidura eta putzu septiko orokor bati lotutako hustubideak.

Nekazari komunitateetako familiek ez dute ur hornidurarik etxean, eta inguruko erreka edo ibaieetatik hartu behar izaten dute ura. Letrinak erabiltzen dituzte saneamendu azpiegitura bakar gisa.

Giza kontsumorako urari dagokionez –premia nagusia–, Edateko Uraren Batzordeek kudeatzen dute. Ura iturburuetatik etxeraino eramaten da hodi sistemen bidez. Nolanahi ere, sistema horien hedadura ez da nahikoa, eta azpiegituren (gordailuak eta kanalak) mantenimendua desegokia da. Ondorioz, ura iragazi eta galdu egiten da.

Etxeetako ur hornidura urritu eta eten egiten da urte sasoi batzuetan, iturrietako emaria txikitu egiten delako lehorte garaian. Komunitate batzuetan, familia batzuk urik gabe egon ohi dira egun batzuez jarraian.

Uraren kalitateari dagokionez, edangarria ez den ura edaten da sarritan, arreta gutxiz egiten delako aldian behingo klorazioa. Ur kontsumoaren kobrantza komunitateen arabera erabakitzen da. Gutxieneko zenbatekoa, familiako eta hilabeteko, 1 Nuevo Sol³ da; gehie-

² Karraskari jangarria

³ 1 Nuevo Sol = 0,3 euro, gutxi gorabehera



Cachorako distrituko eskola bateko ikasgela (Red Sur de Cáritas)

nekoa, 12 Nuevo Sol. Acopía eta Cachorako distrituetako hileko per capita sarrera 155 Nuevo Sol da.

Sukaldean erabiltzen den energiari dagokionez, soilik familien % 7k dute argindarra edo gasa, eta gainerako etxeetan materia organikoa erabiltzen da: egurra, abere gorozkia, nekazaritza hondakinak, etab.

Hezkuntza

Hezkuntza mailari dagokionez, oraindik analfabetismo tasa handia badago ere (emakumeetan bereziki), eskola adinean dauden haur eta gazteen ia % 100 eskolara joaten dira. Horrela, orekatuz doa pixkanaka biztanleria helduagoaren hezkuntza maila apalagoa.

Bi distrituek haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskolak dituzte, eta bigarren hezkuntzako hiru ikastetxe daude (bi Acopían eta bat Cachoran), distritu buruetan.

Eskola guztiek ura eta argindarra dute, baina denek ez dute ura husteko instalaziorik. Ekipamendua nahiko eskasa da eta altzariak nahiko egoera kaskarrean daude.

Irakaskuntza kalitate apalekoa da, eta ez oso egokia inguruko gizarte nekazari eta elebidunerako (kitxua hizkuntza da nagusi inguruotan). Bestetik, irakasleek ez dituzte hezkuntza metodologiak eta eduki akademikoak menderatzen, eta absentismorako joera handia dute, huts egiten duelako hezkuntza agintarien kontrolak.

6 urtetik gorako neska-mutiko guztiak eskolara doaz, urrutien bizi direnek ordubetetik gorako bidea egin behar badute ere oinez ikastetxera joateko.

Ez distritu batean ez bestean ez dago goi mailako hezkuntza edo lanbide heziketa eskaintzen duen ikastetxerik, eta gazteek, batik bat mutilek, hiriburura edo beste hiri batzuetara jotzen dute ikastera edo lan bila. Neska gehienak etxean gelditzen dira, eta mutilek baino aukera txikiagoa dute hezkuntzan edo lan munduan aurrera egiteko.

Ondorioz, neska eta mutil asko oso gazte ezkontzen dira, eta aurre egin behar izaten diete seme-alabak edukitzearen erantzukizunei, oso prestakuntza txikiarekin eta baliabide ekonomiko urriekin.

Osasuna

Acopía eta Cachorako distrituek osasun zentro bana dute, distritu buruetan. Beraz, nekazari komunitateetan bizi diren pertsonak bide luzea egin behar dute osasun arreta jasotzeko, medikuak eta osasun zerbitzuak komunitate horietara iristen ez direlako.

Estatuak arreta programa bat jarri du martxan haurdun dauden emakumeentzat eta 6 urtetik beherako umeentzat, eta derrigorrezkoa da haurdunaldia eta hazkunde osasuntsua kontrolatzeko hitzorduetara joatea.

Oro har, osasun zentroek tresneria eskasa eta mediku gutxi dituzte, eta ez dira nahikoak bi distrituetako biztanleriari arreta egokia eskaintzeko. Haurrak eta emakumeak dira osasun zerbitzuen kalitate txarra gehien nozitzen dituzten kolektiboak.

Haurrengan eragin handiena duten gaixotasunak desnutrizioari lotutakoak dira, elikaduran funtsezkoak diren osagaien defizitagatik. INEI erakundeak 2010. urtean erregistratu zuen haurren desnutrizio kronikoarekiko zaurgarritasun indizea % 85 eta % 74koa izan zen, hurrenez hurren, Acopía eta Cachorako distrituetan.

Gainera, ohikoak dira parasitoek eta beherakoek sortzen dituzten arazoak, higiegi faltagatik. Bestetik, eskualde garai hauetako hotzak arnas gaixotasunak

sortzen ditu. Aurrekoari ingurumen kutsadura gehitu behar zaio, hondakin solidoen tratamendu txarragatik.

Emakumeen kasuan, arreta eskasa eskaintzen zaie haurdunaldian –ekograforik ere ez dago– eta erditzean, eta sarri beste zentro batzuetara joan behar izaten dute. Aipatzekoak dira ere gerru infekzioak.

Familia barruko bortizkeria osasunari lotutako beste arazo larri bat da, gizonen indarkeria emaztearen eta seme-alaben aurka. Acopían eta Cachoran ez dago familia bortizkeria kasuez arduratzen den DEMUNA bulegorik (Defensoría Municipal del Niño y Adolescente).

Errepideak

Errepideei dagokienez, bi distrituek kokapen geografiko nahiko ona dute, eta 2 orduko bidea dago errepidez gutxi gorabehera distrituetako herriguneetatik departamenduetako hiriburuetaraino: Acopiatik Cusco hirira 141 km daude; Cachoratik Abancayra, 52 km. Kilometro aldea nabarmena bada ere, bi ibilbideak egiteko behar diren denborak oso antzekoak dira (2 ordu inguru), orografia malkartsuagatik eta errepideen egoera txarragatik.

Cusco hiria bi distrituen erdigunea da eskualdearen interkonexio sareari dagokionez, eta korridore ekonomiko guztiak bertatik igarotzen dira. Azken urteetan eraiki den Ozeanoarteko Errepideak bultzada eman die korridore horiei. Dena dela, Acopía eta Cachorako komunitateek zailtasun handiak dituzte korridore horietara iristeko, bide sarea egoera txarrean dauden errepideek eta asfaltatu gabeko pistek eratzen dutelako, eta horrek oztopatu eta atzeratu egiten du salgaien eta bidaiarien trafikoa.

Garraio publikoa, bai Acopían bai Cachoran, distrituetako herriguneetaraino bakarrik iristen da, eta ez dago garraio publiko zerbitzurik herrigune horien eta nekazari komunitateen artean, ezta komunitateen artean ere, eta jendeak oinez joan behar du leku batetik bestera. Soilik familia gutxi batzuek dute ibilgailu partikularra: autoa, kamioneta, motoa edo bizikleta.



Acopiako osasun zentroa (Zabalketa)



Garraio publikoa (Old Port Films)



Emakume buruzagi gaztea Internet erabiltzen (Old Port Films)

Telekomunikazioei dagokienez, ez dago telefonia finkoko zerbitzurik, ez distritu batean ez bestean. Nolanahi ere, herriguneetan eta komunitate batzuetan, satellite bidezko telefono zerbitzua erabiltzen da, dena txikietan edo komunitate zentroetan. Gainera, telefonia mugikorrek zerbitzua ere erabil daiteke, operadore bakar batek eskainia, hedadura leku guztietara iristen ez bada ere, orografia menditsuak eta distantzia handiek seinalea oztopatzen dutelako. Internet zerbitzua Acopíara soilik iritsi da oraingoz, eta udal langileek bakarrik erabiltzen dute.

3. Baliabide naturalak eta ekoizpen jarduerak

Baliabide naturalak

Acopía eta Cachorako distrituak oso aberatsak dira baliabide naturaletan (ura, lursailak, larre naturalak eta basoak), eta aukera handiak dituzte nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzarako.

Labore **lurrak** eta bazkalekuak lursail guztien % 35 dira Acopían, eta % 23, Cachoran. Gainerako lursailak

egokiak dira basogintzarako eta ingurumen babeserako (infiltrazio zangak, flora eta fauna lehengoratzeko eremuak, etab.).

Hala eta guztiz ere, **lursailen** kalitatea eta haien erabilerara ahalmena 3 faktoreren mende daude:

- gehiegizko ustiapena (etenik gabeko landaketa eta gehiegizko larratzeagatik)
- ongarri eta produktu kimikoen erabilera
- higadura hidrikoa (eurite garaian lur kantitate handiak erauzten ditu soildutako eremu maldatsuetatik)

3 faktore horiek lur emankorren galera eragiten dute, eta lur horiek balio ekonomiko handia dute nekazari familientzat.

Eskualde hauetako lurrak egokiak dira patata, *mellocoa*⁴, oca, baba, ilarra eta garagarra landatzeko, baita ganaduari jaten emateko bazka espezieetarako ere: alpapa, *rye grass*⁵, hirusta, etab. Eremu beheenetan, larre naturaleko espezieak hazten dira gehien bat, eta abeltzaintzan erabiltzen dira.

⁴ *Mellocoa* eta *oca* *tuberkuluak* dira

⁵ *Ryegrass* belarra da



Miskiuno Komunitateko paisaia (Zabalketa)

Bai Acopían bai Cachoran ur baliabide ugari dituzte (ibaiak, lakuak eta iturburuak), eta giza kontsumorako nahiz ekoizpen kontsumorako erabiltzen dituzte. Hala eta guztiz ere, hilabete lehorretan (maiatza eta azaroa bitartean), behera egiten dute nabarmen lakuetak ur mailak eta ibai eta iturburuetak emariek, eta gorabeherak izaten dira ur horniduran.

Ureztatze Batzordeak arduratzen dira ureztatze uraren kudeaketaz, eta kopuru bat ordaindu behar izaten da urtean lursailaren neurrien arabera. Ureztaketan, uholde sistemak erabiltzen dira gehien bat, eta ura alferrik galdu eta lurzorua higatu egiten da.

Azken urteetan, aspertsiozko ureztatze sistema teknifikatuak ezartzen hasi dira erakunde batzuk. Dena dela, ez zaie behar bezalako etekinik ateratzen, erabiltzaileen gaitasunik ezagatik eta mantenimendurik ezak eragiten duen azpiegituren egoera txarragatik.

Aipatutako baliabide naturalak (ura eta lurra), baita airea eta paisaia ere, hondakin solidoen kutsaduraren eraginpean daude, etxeetan, produkzio jardueretan, merkataritza jardueretan eta herriguneetako kale eta bide publikoen garbiketan sortzen diren hondakinetatik. Zabor bilketa herriguneetan soilik egiten da, eta bildutako hondakinak herrigune inguruetako lursailetan metatzen dira, inolako tratamendurik gabe. Gainera, oso zabalduta dago zaborra soro, bide, ibai eta erreketara botatzeko ohitura.

Ekoizpen jarduerak

Acopía eta Cachorako distrituetako ekonomia laborantzian eta abeltzaintzan oinarritzen da, eta biztanleria aktiboaren % 90 aritzen da zeregin horietan, gizon nahiz emakume. Nekazaritza elikadura segurtasunari

lotuta garatzen da batik bat; abeltzaintza, aldiz, merkataritzarako, familiaren diru sarrerak handitzeko.

Laborantza lehorrekoea da neurri handi batean (euriaren mende dago), eta betiko lanabesak erabiltzen dituzte oraindik (goldea eta igitaia), eskulan behar handiarekin. Etengabeko aldaketa klimatikoek eragin handia dute nekazaritzan, eta gero eta maizago gertatzen diren izozteek, txingor erauntsiek, lehorteek eta uholdeek gorabehera handiak eragiten dituzte laborantza produktibitatearen emaitzetan. Hala, hektarea bakoitzeko uzten errendimendua nabarmen alda daiteke urte batetik bestera.

Abeltzaintzari dagokionez, bai Acopían bai Cachoran, behiak, ardiak, cuyeak⁶, txerriak, zaldiak eta hegaztiak hazten dira. Familia batzuek abelburu gutxi batzuk dituzte; beste batzuek, aldiz, hamarnaka izan ditzakete. Azken urteetan, esne behiek eta cuye hazkuntzak garrantzi ekonomiko handia hartu dute, eskaera handitu egin delako tokiko eta eskualdeko merkatuetan. Gainera, erakunde batzuk cuye hazkuntza bultzatzen ari dira, emakume antolakuntzen bitartez, karraskari hori hazten duten familien proteina beharrak asetzeko modu gisa.

Abeltzaintza ustiapenen kudeaketa teknikoari dagokionez, hainbat ekimen jarri dira abian abeltzainen trebakuntza eta laguntza teknikoa sendotzeko, oraindik emaitzak nahiko apalak badira ere, alderdi teknikoan nahiz komertzialean, eta gabeziak begi bistakoak, elikaduran, osasunean, ugalketan, azpiegituretan, baliu erantsiaren sorkuntzan eta merkatu lehiakorretara sartzeko aukeretan.

Emakumeek eta gizonak ekoizpen jardueretan duten pisuari dagokionez, bi-biak aritzen dira laborantzan eta abeltzaintzan. Laborantzan, zereginak elkarren osagarri dira. Lurra prestatzeko lanetan, bai gizonak bai emakumeak goldatze lanetan aritzen dira, eta emakumeek gainera sastrakak eta landare hondaki-



Emakume laboraria artaldearekin (Zabalketa)

nak kentzen dituzte. Ereinaldi, *aporque*⁷ eta uza biltzeko garaian, bi-biek ere parte hartzen dute. Bestetik, abeltzaintzan, emakumeak arduratu dira beti azien da larratzeaz, jezteaz eta jaten emateaz, eta abereen osasun zaintza eta ugalketa gizonen egitekoa izan da. Azken urteetan, gero eta gehiago dira cuye hazkuntzan diharduten emakumeak, eta ustiapenaren arduradun nagusiak dira kasu askotan.

⁶ Karraskari jangarria

⁷ Landare jakin batzuk lurrez estaltzea (apioa, eskarola eta beste zenbait barazki), samurrago eta zuriago jartzeko.



Nekazari komunitateek ekoizten dituzten produktuak (Zabalketa)

Ekoizpen jardueretan gero eta gehiago parte hartzen badute ere, emakumeek prestakuntza maila txikiagoa dute kudeaketa tekniko eta komertzialerako, aukera txikiagoa izan dutelako trebatzeko. Faktore askok eragiten dute hor: emakumeen autoestimu baxuak; etxe-ko lanez arduratu behar izateagatik denbora gutxiago edukitzeak; senarraren eta komunitatearen babes txikiak edo besterik gabe babesik ezak.

Bestetik, egia bada ere gizonak eta emakumeak parte hartzen dutela ekoizpen jardueretan eta baliabide ekonomikoen komertzializazio eta administrazio jardueretan, gizona da erabaki gehienak eta garrantzietsuenak hartzen dituenak, hainbat arrazoiengatik: ez duelako emakumea kontuan hartzen, edo azken horrek, bere trebakuntza maila txikiagatik, ez duelako bere burua erabakiak hartzeko gai ikusten.

Lurraren titulartasunari dagokionez, komunitatearen lurra lantzen badira ere, familiak izanik lurren gozamenaren, familia bakoitzeko komuneroaren izenean daude, jadanik hasi badira ere herrigune batzuetan lurra bikotearen titulartasunpean jartzen.

4. Analisi politiko eta instituzionala

Acopía eta Cachorako distrituak homogeenak dira politikoki eta instituzionalki. Biak ala biak erakunde eta antolakuntza sare batez eta horien arteko harreman multzo batez eratuta daude, izaera eta garrantzia berekoak.

Erakunde nagusiak hauexek dira: (A) Nekazari Komunitatea; (B) Distrituko Tokiko Gobernuak; (C) Ekoizleen Elkartek; (D) Emakumeen Elkartek.

A. Nekazari Komunitatea

Nekazari Komunitateen Legeak (24656 Legea, 1987) honela definitzen ditu nekazari komunitateak: “Interes publikoa duten antolakuntzak, legezkoak eta izaera juridikokoak, lurralde jakin batzuetan bizi eta antzinako gizarte, ekonomia eta kultura loturak dituzten familiek osatuak, lurraren komunitate jabetza, komunitate lana, elkarrekiko laguntza, gobernu demokratikoa eta sektore anitzetako jardueren garapena izanik lotura horien adierazpideak, eta komunitateko eta herrialdeko kideen garapen osoa izanik helburu nagusia”.

Antolakuntza mota hau 1963an abiatutako Nekazari-tza Erreformen sortu zen, lurraldearen baliabide natural eta produktiboen administrazio eta kudeaketarako, eta nekazarien bizi baldintzak eta baliabideak bermatzeko.

Lurraldearen antolakuntza unitate txikiak da, baliabide naturalen administrazioaz arduratzen dena, eta elkartasun, elkarrekikotasun eta laguntza balioetan oinarritzen diren inke kulturaren ezaugarriak eta lan modu tradizionalak biltzen dituen entitatea da.

Nekazari komunitateetako kideek eskubide eta betebeharrak batzuk dituzte, baliabide naturalen ustiapenari dagokionez, eta hiru mailatan antolatutako gobernu egitura: (i) Komunitate Asanblada; (ii) Komunitatearen Zuzendaritza Batzarra; eta (iii) Batzorde espezializatuak.

1. Komunitate Asanblada

Agintaritza gorena duen organoa da, erantzukizun nagusia duen komunitatearen martxarekin zerikusia



Komunitate asanblada (Zabalketa)

duten erabaki garrantzitsuenetan, eta formalki *komunero* aitortpena duten pertsona guztiek eratzen dute.

Komunitate Asanblada hilero biltzen da, Zuzendaritza Batzarrak deitua, eta erabakiak demokratikoki hartzen ditu, boto pertsonalarekin eta gehiengo sinpleaz.

Komunitate batean, 18 urtetik gorako lagun guztiak (gizon eta emakume) behartuta daude komunitatearen erroldan izena ematera. Erroldan egonagatik, soilik gizonari (senarra) ematen zaio *komunero* titulua, “etxeko burua” delako. Beraz, soilik alargunak edo ama ezkongabeak izan daitezke *komunero*. Ondorioz, komunitate asanblada gizonek batik bat eratzen dute, eta kide guztien % 80 izan ohi dira, batez beste.

Emakumeen parte-hartzea ez da aintzat hartzen, edo balio gutxi ematen zaio, bi usterengatik: alde batetik, emakumeek ez dute gaitasunik (hezkuntza eta tre-

bakuntza maila apalagoa medio) “uztez” teknikoak diren gaietan erabakitzeko; bestetik, ez zaizkie eztabaidagaiak interesatzen. Gainera, emakumeek autostimu txikiagoa dute eta ez dakite zein diren beren eskubideak; beraz, ikusle soilik dira komunitate asanbladatan eta ez dute egiazko herritartasunik erabiltzen.

2. Komunitatearen Zuzendaritza Batzarra

Komunitatearen gobernuaz eta administrazioaz arduratzen den organoa da. Hilean behin bildu eta bi urtetik behin berritzen da, komunitatean erroldatuta dauden pertsona guztien boto pertsonal, sekretu eta derrigorrezkoarekin. Zuzendaritza Batzarra aukeratzea gizonek eta emakumeek berdintasunean parte hartzen duten komunitate mailako erabaki bakarra da.

Batzarrean erabakiak gehiengo sinplez hartzen dira, eta normalean 7 pertsonak osatzen dute: lehendaka-



Emakumeak eta gizonak komunitate asanblada batean (Zabalketa)

ria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina, fiskala eta bi batzarkide. Emakumeek oso parte-hartze txikia dute Zuzendaritza Batzarretan –emakume bat edo bi gehien jota–, eta diruzain lanetan (arduratsuagoak omen dira diru kontuetan) edo batzarkide gisa (kargu laguntzaileak) aritzen dira. Gaurdaino ez da emakumerik izan lehendakari edo lehendakariorde karguetan.

3. Batzorde espezializatuak

Alde batetik, baliabide natural baten (ura, basoak...) administrazioan espezializatutako batzordeak daude, eta organo iraunkorrak izan ohi dira; bestetik, lan edo jarduera batean espezializatutakoak (saneamendua, lurren titulazioa, abeltzaintza...), aldi baterako izan ohi direnak.

8 esku-hartze komunitateek Ureztatze Batzordeak dituzte, ekoizpen jardueretan erabiltzen den uraren kudeaketarako, eta Edateko Uraren Batzordeak, giza kontsumorako erabiltzen den uraren kalitatea zaintzeko.

Nekazari Komunitateen baliabide nagusia komunitate lana eta partaidetza dira, eta jarduera produktiboak,

gizarte lanak eta azpiegitura obrak egiten dituzte haien bidez. Jarduera eta lan horiek Aurrekontu Parte-hartzaileei eginiko proposamen gisa aurkezten dira.

Nolanahi ere, komunitateetako Zuzendaritza Batzarren kudeaketa gaitasun txikia dela-eta (administrazio mailan, maila teknikoan eta beste hainbat mailatan), bere garaian onartutako hainbat proiektu azkenean ez dira gauzatzen, komunitatearen kalterako.

B. Distrituko Tokiko Gobernuak

Distrituko tokiko gobernuak Estatuaren ordezkaritza duten agintaritza modu nagusi eta hurbilenak dira. Alkateak eta zinegotziek osatua, herri bozketaz hautatzen dira 4 urterako.

Udalerrien Lege Organikoaren arabera (27972 Legea, 2003), “Tokiko gobernuak Estatuaren lurralde antolakuntzaren oinarritzko entitateak dira, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten biderik hurbil eta eskura errazena, eta autonomiaz kudeatzen dituzte kolektibitateen interesak...”.



Emakumeak eta gizonak komunitate asanblada batean bozkatzeko (Red Sur de Cáritas)

Gaur egun Perun martxan dagoen deszentralizazio prozesuaren esparru arauemailean, tokiko gobernuak beren gain hartzen ari dira eskumen berriak, eta baliabide ekonomiko handiagoak kudeatzen dituzte. Ondorioz, erantzukizun gehiago dituzte, eta ahalmen handiagoa lurraldearen ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen garapena bultzatzen duten proposamenak diseinatu eta kudeatzeko.

Acopíaren kasuan, ahalegin berezia egiten ari dira ur horniduraren eta oinarritzko saneamenduaren hobekuntzan, esne aziendatik eratorritako produktuen komertzializazioan (gazta eta jogurta) eta cuye hazkuntzan (okela).

Cachoran, cuye hazkuntza ari dira indartzen, ekoizle taldeak sortuz komunitate bakoitzean.

Emakumeek tokiko gobernuetan duten parte-hartzeari dagokionez, neurri formal batzuk hasi dira hartzen; hala nola emakumeen presentzia alderdi politikoen

zerrendetan. Dena dela, oraingoz pisu espezifiko txikia dute, eta kuota gisa ikusten dute herritarrek.

Bai Acopíako tokiko gobernuan, bai Cachorakoan, emakume bana dago zinegotzi modura. Acopían, gainera, beste emakume bat gizarte garapen arloko talde teknikoaren burua da, eta beste zenbait kontabilitate eta idazkaritza arloetan ari dira.

Herritarren partaidetza

Aipatutako esparru arauemaile berriak, gainera, herritarrek tokiko kudeaketa publikoan parte hartzeko dituzten espazio eta mekanismo berriak ere ezartzen ditu, honako tresna hauen bitartez batik bat:

- Garapenerako Itunpeko Plana: plangintza prozesu baten bidez, herritarrek beren komunitatearen edo distrituaren garapenerako proposamenak planteatzen dituzte era antolatu batean.



Komunitate buruzagi bat asanbladan proposamen bat egiten (Red Sur de Cáritas)

- Tokiko Koordinazio Kontseiluak: udal agintarien eta gizarte zibileko antolakuntzen arteko koordinazioaz eta kontsultaz arduratzen dira.
- Zaintza Batzordeak: garapen planak martxa onean doazela eta erabakiak betetzen ari direla bermatzen dute.

Partaidetza mekanismo hauek, horrenbestez, Nekazari Komunitateen eta Tokiko Gobernuen arteko harremanak artikulatzen dituen engranajea dira.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen araudiak baditu zenbait hutsune eta gabezia, eta, adibidez, oraindik ez dago Tokiko Gobernuak baliabide ekonomikoak era eraginkorrean esleitu eta banatzeko sistema egokirik, eta tokiko kudeaketa publikoari eragiten dio horrek zuzen-zuzenean. Gainera, tokiko agintariak oztopoak jartzen dizkiote herritarren partaidetzari, eta desinfor-

mazioa da nagusi azken horien artean, herritar gisa dituzten eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

Emakumeek pisu txikia dute herritarren partaidetzarako itunpeko organoetan, eta Tokiko Koordinazio Kontseiluak horren adibide dira: kontseilu horietan, komunitateko lehendakariak dute gizarte zibilaren ordezkaritza, eta den-denak gizonak dira. Gaur egun, emakumeen partaidetzarako aukerarik handiena Aurrekontu Parte-hartzaileak dira, oinarri antolakuntzek –emakumeen elkarteek barne– proposamenak egiteko eskubidea dutelako.

C. Ekoizleen elkartek

Ekoizleen elkarteek aitortza formala dute, erregistro publikoan inskribatuta daude eta estatutuak dituzte.



Ekoizleen elkarte bat bere produktuak erakusten (Red Sur de Cáritas)

Ekoizpen eta komertzializazio jarduerak hobetzeko helburuarekin sortu dira.

Elkarte hauetako bazkideek administrazio gestioak proposatu, antolatu eta egikaritzen dituzte, baita beren sektorearekin lotutako lanak eta jarduerak ere. Etorkizunari begira aurreikuspen bat badute ere, epe motzeko helburuak ezartzen dituzte, eta jakintza mugatuak dituzte ekoizpen jarduera potentzialei eta haien kudeaketa egokiari buruz.

Elkarte hauen baliabideek bi jatorri dituzte: bazkideek berek eginiko ekarpenak, eta udalerritik edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotzen dituzten laguntzak. Zoritxarrez, ekoizleen elkarteak gobernu laguntzen mende daude, eta laguntza horiek huts eginez gero, eragina nabarmena da antolakuntza eta teknika arloetan. Hobekien funtzionatzen duten elkarteetan, bazkideek ekarpen ekonomiko batzuk egin eta aldi behin funtsak biltzeko jarduerak antolatzen dituzte. Horrela, dirua lortzen dute, azpiegiture-

tan inbertitzeko (estalpeak, txabolak, etab.), ugalketaazienda erosteko eta beste behar batzuei erantzuteko.

Elkarteak badira ere, produktuen komertzializazioa bakarka egiten da eskuarki, eta soilik kasu gutxi batzuetan banatzen dira irabaziak elkarteko bazkideen artean.

Acopíako distrituan, elkarte ekoizle hauek daude: esneki ekoizleen elkarte bat, cuye hazkuntzako hiru elkarte, artzain elkarte bat eta gizentzeko aziendarekin diharduen beste bat.

Cachorako distrituan: cuye hazkuntzako bost elkarte, nekazaritza-abeltzaintza eta erle ekoizleen elkarte bat, eta ahukate ekoizleen beste bat.

Ekoizpen antolakuntza hauek, esne behiak eta cuyeak hazten dituztenek batik bat, funtsezko garrantzia dute gaur egungo gizarte egiturari, aitzindari direlako tokiko garapen ekonomikorako proposamen eta estrategia berrietan, eragile publikoekin (alkatetzarekin



Emakume elkarte baten bilera (Red Sur de Cáritas)

batik bat) nahiz pribatuekin (nazioarteko lankidetzako erakundeak nagusiki) elkarlanean.

D. Emakumeen elkarteak

Acopía eta Cachoran, ugalketa funtzioari lotuta sortu diren emakumeen elkarteak daude, familia elikaduraz arduratzen direnak, eta bai Estatuak (Elikadura Programen bidez) bai erakunde pribatuek (Garapenerako GKEak adibidez) elkarte horien sorreran lagundu dute.

Edalontzi Esne Batzordeak eta Amen Elkarteak estatuko Elikadura Programetatik jasotako baliabideak administratzeaz arduratzen dira, eta elikadura laguntza eskaintzeaz beren komunitatean baldintza kaskarrenetan dauden kolektiboak (haurdun dauden emakumeak eta edoskitze garaian daudenak, 0-6 urteko haurrak, nerabeak eta pobrezia larrian bizi diren pertsonak, besteak beste). Batzorde hauek “emakumeen” elkartetzat hartzen dira, elikadura eta seme-alaben zaintza rol femeninoekin lotu izan direlako beti. Era honetako programek protagonismo berezia dute tokiko garapenean, emakume nekazariak mobilizatze-ko duten gaitasunagatik.

Acopíako distrituko komunitateetan eta komunitate erantsietan, Elikadura Segurtasuneko Antolakuntzak sortu dira, 5 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama elkarteek eratuta, elikadura segurtasuna bermatzeko. Hala, tokiko GKE batek gaikuntza eta laguntza eskaintzen dizkie amei, cuye hazkuntzarako eta bio-baratzeak sortzeko.

Dokumentu hau idazteko, “*Garapen bidezkoa eta iraunkorra Peruko Andeetako komunitateetan*” izeneko proiektuko informazioa erabili da. Proiektua Peruko Caritas Red Sur eta Zabalketak landu zuten, eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziak 2011n egin zuen “*Programetarako laguntza eskaerak Garapenerako Lankidetzeta eta Laguntzaren Funttsaren (FOCAD) kontura*” deialdian aurkeztu zen.